

SEKTORE PUBLIKOAREN AURREKONTUEN ESTATISTIKAK. 2018

Diru-sarrerak % 4,9 igo ziren eta gastuak % 3,2 Euskal AEko Administrazioetan 2018an

Zor bizia 11.558 milioi eurokoa izan zen 2018ko abenduaren 31n, BPGren % 15

Euskal AEko Administrazioen (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta Udal Administrazioak, euren Erakunde Autonomoekin eta udalez gaindiko eta azpiko Erakundeekin batera) diru-sarrera sendotuak –19.048 milioi euro– % 4,9 gehitu ziren 2018an aurreko urtearen aldean, Eustaten arabera. Bestalde, gastuak 18.064 milioi eurokoak izan ziren, % 3,2 gehiago.

Eragiketa ez-finantzarioei dagokienez, diru-sarrerak ere gastuak baino gehiago hazi ziren, % 3,5 lehenak eta % 0,2 gastu ez-finantzarioak; beraz, Finantzazkoa ez den Aurrekontu Saldoa 2017an 599 milioi eurotik 1.164 milioi eurora igaro zen 2018an.

Euskal Administrazioen likidazio finkatua (Mila euro). 2017-2018

	2.017	2.018	Δ%
SARRERAK GUZTIRA	18.150.478	19.048.278	4,9
Eragiketa Arruntak	16.690.012	17.196.087	3,0
-Zerga Sarrerak	15.065.955	15.706.658	4,3
PFEZ	5.142.483	5.456.883	6,1
Sozietate-zerga	1.076.963	1.498.634	39,2
BEZ	6.047.093	5.881.672	-2,7
Zerga Bereziak	1.457.082	1.478.552	1,5
Udal-zergak	724.751	745.303	2,8
Bestelako Zergak	617.583	645.614	4,5
-Bestelako sarrera arruntak	1.624.057	1.489.429	-8,3
Kapital-eragiketak	167.096	256.323	53,4
Finantzaz besteko eragiketak Guztira	16.857.108	17.452.410	3,5
Finantza-eragiketak	1.293.370	1.595.868	23,4
GASTUAK GUZTIRA	17.502.238	18.064.454	3,2
Eragiketa Arruntak	14.701.164	14.686.794	-0,1
Langileria Gastuak	3.634.851	3.721.803	2,4
Transferentzia Arruntak	5.358.285	5.165.700	-3,6
Bestelako Gastu Arruntak	5.708.029	5.799.290	1,6
Inbertsioak eta Kapital-eragiketak	1.557.201	1.601.848	2,9
Finantzaz besteko eragiketak Guztira	16.258.365	16.288.642	0,2
Finantza-eragiketak	1.243.873	1.775.812	42,8
ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA	1.988.848	2.509.293	26,2
AURREKONTU-SALDO EZ-FINANTZARIOA	598.743	1.163.767	94,4

Iturria: Eustat. Sektoare publikoaren aurrekontuen estatistikak

Bestalde, finantza-eragiketen sarrerak eta gastuak % 23,4 igo ziren 2018an, 1.596 milioi eurora iritsita; finantza-gastuak, berriz, ehuneko handiagoan igo ziren, 1.776 milioi eurora helduta, hau da, % 42,8koigoera izan zen.


Diru-sarrera ez-finantzarioen hazkundera diru-sarrera arrunten bilakaera positiboan oinarritu zen (% 3,0); bestalde, diru-sarrera guztien % 92 izan ziren. Kapital-eragiketengatik diru-sarrerak, askoz pisu txikiagokoak, % 53,4ko igoera izan zuten.

Zerga-sarrerak diru-sarrera guztien % 82,5 hartu zituzten 2018an, eta ia guztiek portaera positiboa izan zuten aurreko urtearekin alderatuta, eta baterako hazkunde-tasa % 4,3koa izan zen. BEZak soilik izan du tasa negatiboa, % 2,7koa, baina konparazioa baldintzatzen duen aparteko elementu batek azaltzen du: 2017an 599,9 milioi euro egotzi zitzaizkion ekitaldiari (Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren akordioen ondorioz), eta % 17,1eko ustekabeko igoera eragin zuen 2017ko ekitaldian, aurreko urtearekin alderatuta, eta, aldi berean, 2018ko jaitsiera eragin du. Igoera, termino homogeneoetan, % 8koa izango litzateke.

PFEZa eta BEZa dira zerga-sarreraren artean pisu handiena duten zerga-figurak, eta % 37,5 eta % 34,7 ematen diete, hurrenez hurren, diru-sarrera guztiei.

PFEZari dagokionez, kontzeptu horren ondoriozko diru-sarrerak % 6,1 igo dira 2017arekin alderatuta, Sozietateen atzetik gehien hazi diren bigarrenak izanik. Sozietateen gaineko Zerga zergen % 9,5 baino ez bada ere, % 39,2ko hazkundera izan du. Zerga Bereziak, zerga-sarreraren % 9,4 izanik, % 1,5 igo ziren. Azkenik, Udal Zergek eta Bestelako Zergek ere bilakaera positiboak izan zituzten, % 2,8ko eta % 4,5eko igoerekin, hurrenez hurren.

Euskal Administrazioen zerga sarreraren banaketa. 2018 urtea (%)



Iturria: Eustat. Sektoze publikoaren aurrekontuen estatistikak

Beste diru-sarrera arruntak –tasak, transferentziak eta ondare-sarrerak, besteak beste– eragiketa arruntengatik diru-sarrera guztien % 8,7 izan ziren, eta % 8,3ko jaitsiera izan zuten.

Gastu arruntei dagokienez, % 0,1eko jaitsiera izan zuten. Jaitsiera hori, nagusiki, Transferentzia arrunten partidak eragin du, gastu guztien % 28,6ko pisuarekin, eta % 3,6 jaitsi ziren 2017. urtearekin alderatuta. Pertsonal-gastuek bilakaera positiboa izan dute, gastu osoaren % 20,6 pilatu baitzuten eta % 2,4 hazi baitziren. Azkenik, Beste gastu arruntak % 1,6 hazi ziren. Bestalde, Inbertsioen eta Kapital-transferentzien gastuak (guztizkoaren % 8,9) % 2,9 igo dira 2017ko datuekin alderatuta, eta 45 milioi gehiago izan dira.

Erakundeetan, bai Eusko Jaurlaritzak bai Lurralde-administrazioek (Aldundiak eta Toki Erakundeak) finantzazkoak ez ziren aurrekontu-saldo positiboak erregistratu zituzten. Zehazki, Eusko Jaurlaritzak 447 milioi euroko saldo positiboa izan zuen, 211 milioi euroan hobetuz 2017an

erregistratutakoaren aldean. Hiru lurraldeek mantentzen dituzte saldo positiboak eta aurreko urtean baino hobeak.

Euskal Administrazioen datu finkatuak (Mila euro). 2018

	GUZTIZKO BATERATUA	EUSKO JAURLAR.	ARABA/ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA
SARRERA ARRUNTAK	17.196.087	10.362.055	2.780.681	8.716.560	5.546.727
GASTU ARRUNTAK	14.686.794	9.153.980	2.605.399	8.008.827	5.128.524
ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA	2.509.293	1.208.075	175.282	707.733	418.203
KAPITAL SARRERAK	256.323	118.459	32.663	68.314	95.954
KAPITAL GASTUAK	1.601.848	879.982	115.822	376.056	289.056
AURREKONTU-SALDO EZ- FINANTZIALARIOA	1.163.767	446.552	92.123	399.991	225.101
ZOR BIZIA (Amortizatzeke 18-12-31)	11.558.086	9.134.283	599.535	1.329.154	495.114

Iturria: Eustat. Sektoe publikoaren aurrekontuen estatistikak

Euskal AEko Administrazio Publikoen zor bizia 11.558,1 milioi eurokoa izan zen 2018ko abenduaren 31n, BPGren % 15. Pasibo berriak 1.551,3 milioi izan ziren 2018an, eta amortizazioak 1.646,5 milioi.

2018. urtearen amaieran amortizatu gabe zegoen zor biziaren guztizkotik, Eusko Jaurlaritzarena da zor osoaren % 79; ondoren, Bizkaia (% 11,5), Gipuzkoa (% 4,3) eta, azkenik, Araba (gainerako % 5,2a) daude.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62